


Ate atzeko zuloa



Ate atzeko zuloa

Jatorrizko izenburua: El pou darrere la porta

Egilea: Josep Samper

Itzultzailea: Antton Olano

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Erein

MIKEL GARMENDIA

Olga eta Alex ditugu Josep Samper idazle, itzultzaile eta zinema-gidoigile kataluniarraren azken eleberriko pertsonaia nagusiak. Ikaratuta daude, biak bizi diren etxean norbaitek edo zerbaitek eraginda – betiere Olga eta Alexen ustez– igogailuaren inguruan gertatzen diren hainbat gauza arrarorekin, hala nola duela urte batzuk, inongo arrastorik utzi gabe, bi ume desagertu izana.

Benetan gai interesgarria jorratzen da, modu arin eta bizian kontatua, gazteei zuzendutako eleberri honetan: beldurra, psikosia, paranoia. Eta hori, hiri-giroan kokatua, alegia, hiri-giroan sortzen diren (ditugun?) mamu, izaki misterioitsu eta beldurgarrien artean. Badu Samperek lehendik ere gai berberari buruzko saiakera bat idatzia Antonio Ortirekin batera: *Leyendas urbanas en España*.

Beldurra, horra hainbat eta hainbat arazo, gaixotasun eta urduritasunen iturburua. Are gehiago, beldurra unibertsa dugu Ana Isabel Moralesek berriki idatzitako *Arazoak zinetokian* lanaren karietara adierazi duenez: "Nagusiok, beharbada, iluntasun dosi handiagoa behar dugu ikaratzeko haurrek baino, baina funtsean mamu berberak ikaritzen gaituzte".

Imanol Mercero haur eta gazte literaturako kritikariak J.K. Igerabideren *Jonas* bilduma goraiatzeko darabilen arrazoibide berberagatik goraiatuko dugu guk ere *Ate atzeko zuloa* eleberria, hots: "Intrigaz jantzitako inimiziazko ibilbidea osatzen du pertsonaia nagusiak [pertsonaiak nagusiek gure kasuan] dagokion garapenarekin azaleratua, barne gatazka oso humanoen ispilu izanik. Hariaren osagarri informazio juxtua ematen zaigu, bide antzurik sortu gabe eta –hau bai eskertzekoa– inongo unetan ez da edukitzen autolaguntza liburu baten aurrean eduki ohi dugun erretolika moralizatzaileak."

Ez ziren arrazoibide horretatik oso urruti ibiliko eleberri honi Barcanova 2008 saria eman zioten epaimahaikideak.

Eta orain arte egindako goraiamenei (gaia, egitura, intriga...) itzulpenarena ere gehitu behar diogu Antton Olanok euskaraturik heldu zaiguneko honetan. Motz geldituko ginatke itzulpen ona, ondo kurritzen duena eta horrelakoetan utziz gero. Bada froga bat, itzulpen baten edo are testu baten efektua neurtzeko, boz gorako irakurketa, alegia. Horretxan bila ibili izan dira eta dabilta idazle eta itzultzaile konformagaitzak. Ahalegin hori du nire ustez eskertzekoa Olanoren euskarazko bertsioak, zeina gustura irakurtzekoa ez ezik, norbaitek irakurrita entzunez gozatzekoa ere bai baita.